

# Hitzak eta

RUPERT COLVILLE

## AUSTRALIAR “UHOLDEAK”

“ZUZENA AL DA KONTZENTRAZIO ESPARRU esatea antzina meatzarien bizileku izan ziren haiei, kontuan hartuta gaur egun aire girotua, liburutegiak, ikasgelak, Maytag garbigailuak, telebistak eta ordenagailuak dituztela eta bertan bizi direnek kulturalki zuzenak diren menuak, hala nola, halal eta menu begetariano, jaten dituztela?”, galdetzen zion bere buruari australiar kazetari batek 2007ko ekainean. Woomerako atxiloteta guneari buruz ari zen, Australia barrualdeko basamortuan.

Galdera hura zen 739 hitzez osatutako zutabe batean erdeinuzko konnotazio, mito eta desitxuratzeko gehien nola sar litezkeen erakusteko ikasgai bikainaren hasiera.

“Benetan, hain ‘gizagabea’ al da zentro mota horietan, zerga ordaintzaileentzat eguneko 100 dolarreko kostuarekin, atxilotuta edukitzea Australiara legez kanpo iristen diren boat peopleak eta gainerako asilo eskatzaileak, benetako errefuxiatuak edo iruzurtiak diren erabakitzen den bitartean? –jarraitzen zuen–. ‘Arrazistak’ al gara basakeriak egin izanaren susmagarri diren Irakeko eta Afganistango soldadu ohiei bisaturik ematen ez diegulako? Bada halaxe da, zenbaitek beren tribunatik esaten dutenaren arabera”.

Era horretako zutabe idazle askok bezala, lastozko txotxongiloak egin eta ondoren gupidarik gabe eraistea da idazle haren taktika gogokoenetako bat. Naturaltasun osoz igarotzen da asilo eskatzaileak astintzetik haien aldekoak astintzera, eta ondoren, berririo ere erasoari ekiten dio: “Ez da harritzekoa aurreko astean Villawoodeko atxiloteta zentroaren aurrean manifestaldian bildutako 1.500 laguneko artean sozialista, anarkista, ikasle, sindikalista, berde

eta asmo oneko inozo koalizio bera egotea... Are gehiago, zenbaitek aipatu dute zentroetan indarkeria sustatzeko kanpoko hainbat asaldatzaileek antolatutako kanpaina bat izan dela”.

Berehala zabaltzen da atxilotutako asilo eskatzaileak arriskutsuak direla dioen argumentua: “Zentro barruko manifestaldiak nolabaiteko kutsu militarra hartu dute, zenbait iturrik diotenaren arabera. Aurreko hilean Por Hedlanden egindako sarekada batean, poliziak armak aurkitu zituen, eta horien artean ustez gitarra baten hariak egindako garrote bat...”

Ondoren, topiko katastrofista guztiak azaleratzen ditu bata bestearen atzetik. Lehenbizi, asilo eskatzaileak irakurleen diru guztia irensten dutela: “Matxinaden ondorioz, bederatzita hila-betetan 20 milioi dolar erabili dira segurtasuna hobetzeko, eta horrela, 250 milioi dolarrera igo da zerga ordaintzaileek atxiloteta zentroetan azken 18 hilabeteetan gastatu duten diru kopurua”.

Ondoren, Australia inbasio arriskuan dagoela dio: “Kontua da munduan 22 milioi errefuxiatu daudela, eta ez dagoela atek zabaltzeko politika eraman dezakeen herrialderik”. 2001. urtearen hasieran, munduan errefuxiatu gehien dituzten herrialdeen zerrendan Australia hogeita hamabigarren lekuan zegoen, eta urte horretan bertan, 12.400 asilo eskatzaile hartu zituen, Irlanda baino pixka bat gehiago eta Belgikan hartutakoena erdia.

Eta amaitzeko, zuzenean eta zeharka legez kanpoko ekimen kriminalak egin dituztela salatzen du: “Azken ekitaldian, itsasontziz edo hegazkinez 4.100 immigrante etorri ziren legez kanpo Australiara... Horietatik erdia agiririk gabe edo paper faltuekin etorri zen... Atxilotuta daudenetako askok eta askok 10.000 dolar inguru ordaindu diete pertsona trafikatzailerei, haiek esaten baitiete Australian etxebizitza bat eta gizarte segurantzak edukiko dutela... Silka sartzeko antzean adituak diren horien asmenari esker immigrante baliagarriago bihurtzen direla ondorioztatu zitekeen. Hobe genuke atzerriko herrialderen batean, errefuxiatuentzako eremu

“

**Hizkuntza politikoa... gezurrei egi itxura emateko eta hilketa bati ekintza errespetagarriaren itxura emateko asmatu da, eta orobat asmatu da airez osatua denari sendotasun itxura emateko”.**

—GEORGE ORWELL  
“Politika eta ingeles hizkuntza”, 1946.

s to Australia quadruple

Thousands of illegal immigrants are smuggled into Australia each year by gangs who charge thousands of dollars for the illegal trips.

"I am in no way a racist"

# Irudialak

ave of illegals fast becoming a tsunami

miserable batean, beren txanda eraman onez itxaroten dutezantzar gordeko bagenu gure errukia... Ahoberokerien eta gezurren bitartez errukia sentiaraztera bultzatzen zaituztela sentitzea da errukiarekin amaitezko metodorik onena".

Zenbait herrialdean, horrelako artikulu batek izugarritzko iskanbila sor dezake irakurleen artean, herriar talde osoak deabrutzen dituelako orokortze zentzugabe horien bitartez -asilo eskatzaileak oro har, baina baita afganiarrak eta irakiarrrak ere-, "basakeriak egin izanaren susmagarri diren... soldadu ohi" bihurtzen baititu. Australian, ordea, apenas sortu zen harri durarik artikulu honen aurrean, neurri handi batean ideia horiek denbora zeramatelako errotuta eta eguneroko zabalzen zituztelako politikariek -nahiz eta egilearen hizkuntza neurrigabekoa izan prentsa idatziaren barruan (baina arina zenbait irriti esatarik zuzenean izaten dituzten parte-hartzeetan erabiltzen duten hizkuntzarekin alderatuz gero)-.

Lau hilabete igaro baino lehen, talibanak kargutik kentzeko gerran sartuta zegoen Australia, bete-betean, eta handik 18 hilabetera Saddam Husseinen kontrako gerran. Afganistango eta Irakeko erregimenak kaltegarriak ziren, eta eraitsi egin behar ziren, baina politikariek, komunikabideek eta iritzi publikoak ez zituen haietatik ihes zebiltzanak gogoko.

## EDO GUTXI BATZUK ZIREN?

HAINBAT URTEZ, ASILOESKATZAILEAK HERRIALDEA "BETETZEN" edo "inbaditzen" ari zirela aditzera ematen zuten adierazpen politiko eta aipamen mediaticoak jasan zituzten australiarrek, behin eta berriro; beren borondatez etortzen zirenak "legez kanpokoak" zirela (ez, ordea, nazioarteko zuzenbidearen begietara), eta adituak zirela "txanda-pasa egiten" ("benetako" errefuxiatuak beste herrialde batzuetan noiz kokatzen zituzten zain zeuden bitartean).

2002. urteko irailean ACNURek egunkari bilatzaile bat erabili zuen Australiako egunkari nagusietan -nazio mailakoetan zein eskualde mailakoetan- galdeketa txiki bat egiteko. Ikerketa hark erakutsi zuen aurreko bi urteetan 631 aldiz erabiltzirela "Australia", "babesa" eta "uholdea" hitzak. Gutxi batzuetan izan ezik, gehienetan aditzera ematen zen Australiak asilo eskatzaile askori aurre egin beharko zuela. Artikulu haien ondoan jendez betetako itsasontzien argazkiak agertu ohi ziren; telebistan ere antzeko bidetik heldu zitzaion gaiari, eta ondorioz, "inbasioaren" ideia indartu egin zen.

Hala ere, Australiak ez du inoiz asilo eskatzaile uholde baten antzeko ezer jasan.

ACNURek, mito hori agerian utzi nahian, honako adierazpen hau egin zuen 2002ko uztailean: "Australiara iristen den jende kopurua, mundu osoko kopuruak kontuan hartuta, oso txikia da. Horiei buruz uholdeak osatuko balituzte bezala hitz egiten da, baina egiatan, eta Europako herrialde gehienekin alderatuz gero, tantaka datozela esatea izango litzateke egokiena. Pobretasun maila handiko garapen bidean diren herrialde askotan dagoen errefuxiatu kopuruarekin alderatuz gero -askotan ehunka milaka eta baita milioika ere-, Australiara datorren jende kopurua, urteko 10.000tik beherakoa da, oso txikia alegia".

Salbuespen ohoragarriak gorabehera, garrantzizko komunikabide gehienak babesaren gaiari buruz aipatutako gezurretatik esnatzen hasi ziren. Eta azkenik, ohartu zirenean uholdea irudikeria bat baino ez zela, ez zegoela zertan txanda-pasa egin, eta derrigorrezko atxilotetaren erregimena mundu industriarizatuko erregimen zorrotzera zela, kazetari australiar askok aldatu egin zuten asiloari buruzko ikuspegia.

2006. urterako Australian dezente baretu ziren gauzak asiloari buruzko auzian, alegia GKEek eta ikerlariak urteak eman ondoren estereotipoak ahultzen. 2002. urte amaieraz geroztik, "uholde" hitza eta "txanda-pasa egiten adituak" esapidea gero eta gutxiago ikusi ziren australiar komunikabideetan. Dena dela, irakurleek prentsan idatzitako eskutitzetan halakoek denbora luzean iraun zuten, terminologia hura sakon errotu baitzen iritzi publikoan.

Denborarekin, ordea, errefuxiatuei buruzko gero eta istorio positibo gehiago agertu ziren prentsan, batez ere langile errefuxiatuekin pozik zeuden nekazal inguruetakoko uga-zaben istorioak argitaratu ziren; aipamen haietan errefuxiatuak izaki duin gisa agertzen ziren, eta ez mehatxu abstraktu gisa.

Woomerako atxiloteta zentroa 2003an itxi eta eraitsi zuten. Haren ondoren hainbat aldaketa positibo egin dira australiar legedian asiloari buruz; besteak beste, haurrak zituzten familiei atxiloteta zentroetatik kanpo bizitzeko baimena ematea erabaki zen 2005eko ekainean. 2006ko martxoan, Immigrazioaren Legearen kudeaketa eta funtzionamendua ikertzen zuen Senatuko batzorde batek hainbat proposamen egin zituen sistema hobetzeko, besteak beste, asilo eskatzaileak derrigorrez atxilotuta edukitzeko denbora gehienez 90 egunetara murriztea.

Australiara iristen diren asilo eskatzaileen kopurua jaitsi egin da: 3.200 lagun urteko, hau da, munduko kopuru osoaren



ehuneko bat (2005. urtean guztira 335.000 asilo eskatzaile, 50 herrialdetan banatuta).

Uholde are txikiagoa, litekeena bada.

### “ASILOAREN EROMENA” ERRESUMA BATUAN

ASILOAREN ETA IMMIGRAZIOAREN KONTRAKO JARREREK EDO jarrera okerrek komunikabideetan duten hedadura gaiaren konplexutasunaren eta terminologiaren ondoriozkoa dela esan liteke, eta orobat zenbait politikarik hauteskundeetan etekinak aterako dituztelokoa gaia hutsaltzeko duten prestasunaren ondoriozkoa da, eta baita komunikabideek gertaerak, zifrak eta interpretazioak ez egiaztatzeak ohituraren ondoriozkoa ere. Errefuxiatuen lobbyak ere badu errua, ez baitu bizkortasunez eta eraginkortasunez jardun mitoak sortu ahala baliogabetzen.

Gauza bat da informazio txarra duen edo narras jarduten duen kazetaria edo erredakzio burua: beti izango du informazio hobea lortzeko aukera. Baina askoz ere kaltegarriagoa da plan zehatz bati jarraitzen dion eta bere eduki guztietan plan hori aplikatzen duen komunikabidea -ez bakarrik artikulu nagusietan edo iritzizko zutabeetan, baita berriak emateko moduan ere-.

Egunero argitaratzen diren eta nazio mailakoak diren bost egunkaritatik lauk -guztira 17 milioi irakurletik gora hartzen dituztela kalkulatu da (herrialdeko biztanleen herena)- asilo eskatzaileei buruzko hainbat eta hainbat “berri” argitaratzen dituzte, horrenbeste ezen, asko-

tan, oso informazio gutxi eta ikuspegi partzial asko ematen duten.

Lau egunkari horien orrialde nagusietan, azken bost urteotan argitaratutako ehunka istorio su-eragileren artetik, asilo eskatzaile bati edo errefuxiatu bati buruz arrazoizko edo aldeko irudia ematen duten artikulua zenbatzeko nahikoak ditugu esku bateko hatzak.

Hainbat komunikabideren artean egindako ikerketa batek adierazten du The Sun, Daily Mail, Daily Express, Daily Star egunkarietan eta horien igandeko eranskinetan -News of the World, Mail on Sunday eta Express on Sunday- 2000ko urtarrikalaketatik 2006ko urtarrikalaketara bitarteko aldirian 8.163 artikulutan aipatzen dela “asilo eskatzaile” hitza; kopuru benetan harri-garria. Ikerketa horren emaitzen barruan, bestalde, hainbat irregulartasun eta errepikapen sartzen dira, hala eta guztiz ere, kopuru horrek oso ondo erakusten digu nola landu den asiloaren eta immigrazioaren gaia egunkari horietan.

Egunkarien estrategiaren barruan, terminologia nahastea garrantzizko osagaia izan da. Askotan, “asilo eskatzaile” eta “immigrante” hitzak gauza bera balira bezala erabiltzen dira (bost urteko epean, 1.427 artikulutan agertzen dira bi hitz horiek). “Asilo eskatzaile” zena, “immigrante” edo “errefuxiatu” bihurtzen da hurrengo lerroan; eta 575 artikulutan hiru hitzak agertzen dira. Zuzenak ez diren edo engainagarriak diren esaldiak ere ugariak izaten dira, esate baterako “legez kanpoko asilo eskatzaileak” eta “legez kanpoko errefuxiatuak”. Horren guztiaren ondorioz, zaku berean sartzen dira denak, atzerriarren zakuan hain zuzen ere (zaku horretan amaitu dute ijitoek ere -horietako batzuk atzerriar asilo eskatzaileak dira, eta beste batzuk bertakoak-, badaezpada).



**Egunkari askok zabaldutako gezurrek pozoitu egin dute jendearen diskurtsoa asiloari buruz”**



**PLAN**  
Join me in the battle against the dreaded orange peel skin with my unique day-by-day regime  
SEE PAGES 44-47

**STARTS TODAY ONLY IN YOUR DAILY EXPRESS**

**ASYLUM SEEKERS COST US £1 BN A YEAR**

**DAILY EXPRESS**  
NANCY: I'm home to sort out Sven  
DIANA: Now they want to dig her up

**1 IN 4 TERROR SUSPECTS ARE ASYLUM SEEKERS**

**DAILY EXPRESS**  
The World's Greatest Newspaper  
10% OFF ARGOS JEWELLERY

**Stunning daughters of the Rolling Stones**  
How the Honky Tonk women are making an impact on the world

**ASYLUM SEEKER'S £6M SLAVE TRADE IN BRITAIN**

**SEE PAGES 10&19**

Bost urteko epe horretan bertan, "iruzurgile" hitza 713 alditan agertu da Erresuma Batuko zazpi egunkari horietan, eta "asiloaren iruzurgile" esapidea, berriz, 188 alditan. "Kriminal" eta "asilo eskatzaile" hitzak, biak batera, 538 alditan agertu dira, eta "krimen" eta "asilo" hitzak 945 alditan (375 kasutan, baten eta bestearen artean bost hitz baino gutxiago zeuden). Berrogeita hamar artikulutan uztartzen zituzten asilo eskatzaileak eta bortxaketak, era honetako izenburuen bitartez: "Bortxaketen munstroa den errefuxiatua", «Immigrante nazkagarri bat» eta "Irakiar bati galdeketa egin diote bortxaketa kasu bat dela-eta".

"Asilo" eta "eromena" hitzak 271 alditan agertu ziren artikuluberean, horietatik 141 alditan The Sun egunkarian. Egunkari horrek berak 2003. urte hasieran "Asiloaren eromena geldiarazi" kanpaina antolatu zuen.

The Sun egunkariaren arabera, 839.000 irakurle ebaki zituzten egunkari horretan, egunero, "asiloaren eromenari" buruz hainbat astez argitaratutako istorio sail berri amaiezina-rekin batera zabalduak kupoiak. Kopoi horiek zaku pila batean garraiatzen ziren, Suneko argazkilariekin batera, eta Home Officen (Britainiako Barne Ministeria) husten zituzten, hura baita asilo eta immigrazio arazoez arduratzen dena. Handik zenbait astetara, egunkariak iragarri zuen milioi bat pertsonak baino gehiagok izenpetu zutela kanpaina eta ohar hau egin zioten mehatsu moduan Gobernuari: "Gero eta denbora gutxiago gelditzen da".

Asiloaren gaiari britainiar komunikabideek eman dioten zabalduak nahiko sakon aztertu dute hainbat unibertsitatek, GKEK eta ikerketa institutu politikoek; baina asiloaren kontra argitaratutako artikulua, editorialak, zutabeak eta binetak -

eta baita kiroletako orrialdeetan agertutako asmo gaiztoko aipamenak ere- ez dira inoiz osotasunean katalogatu, eta ezta azaldu ere.

Hala eta guztiz ere, 2003an Daily Express egunkariak, 31 eguneko epean, asiloari eta errefuxiatuei buruz 22 istorio negatibo argitaratu zituen lehen orrialdean, eta horrek erakusten digu zenbatekoa izan zen zabalkunde hura.

**DIFAMAZIOEN JOKOA**

IA INORK EZ DU IRAKURTZEN EGUNKARI BAT EGUNERO, ETA HORTAZ, oso jende gutxi oharatu da asiloaren kontrako gerra danborrek ez diotela jotzeari utzi. Britainia Handiari "asiloaren munduko hiriburua" ezizena jarri zioten. Asilo eskatzaileak kriminalak edo terroristak zirela esaten zen egunero. VIIa eta tuberkulosia inportatu ohi zituztela. Britainiar emakumeak bortxatzen zituztela eta haurrak automobilez harrapatzen zituztela. Eta beltzarga eta asto britainiarrak jan eta britainiar ibaietako arrain ia gehienak lapurtzen zituztela.

Bien bitartean, Estatu "zintzoak" luxuzko hoteletan ostatu ematen ziela esaten zen, eta sakelako telefonoak ematen zizkielela, gizarte dirulaguntza ugari ematen zitzailela eta dohain ematen zizkietela golf eta sukalde eskolak. Asilo eskatzaileen, immigranteen eta ijitoen kontrako artikulua horiek guztiak bilduz gero-egunkarietan nahiago dute "ijito" hitza erabili "romani" erabili beharrean-, erakusketaren areto handi bat betekoa litzateke.

Istoria horietako asko identifikatu gabeko "polizia iturrietan" oinarrituak ziren, eta hainbat (poliziak berak argi utzi zuten) asmakizun hutsak ziren. Horien artean daude The Sun

**Era honetako ehunka azal eta artikulua ikusi dira Erresuma Batuko egunkarietan azken bost urteotan. Daily Expressek asiloaren kontrako 22 portada argitaratu zituen 31 egunetan.**

## Hitzak eta irudiak



**asilo eskatzaileen kontrako adierazpide arrazistak ohiko txanpon bihurtu dela dirudi**

—(britainiar polizia).

egunkariko beltzargak jaten zituzten Ekialdeko Europako asilo eskatzaileak eta Daily Star egunkariko asto jale somaliarrak. Daily Express egunkarian “BLAIR HILTZEKO PLANA: goi mailako teknologiako ekipoak eta mapak aurkitu zaizkie hainbat asilo eskatzailei Lehen Ministroaren etxetik milia erdira” izenburuarekin argitaratutako artikulua salatu egin zuen toki-kopoliari: “Ahal bezain argi esango dut istorio hori asmakeria hutsa dela, eta horixe bera esan geniola Daily Express egunkariari lehenengo aldiz gai horri buruz galdetu zigunean...”.

2003ko uztailan Erresuma Batuko Asiloari eta Errefuxiatuei buruzko Ikerketa Zentroak egindako azterketa batean adierazten zen jende asko ohartzen bazen ere egunkariak ezinikusia sortzen aritzen zirela, jendea ados zegoen, oro har, egunkari haietako irizki gehienekin, eta haiek erabiltzen zuten hizkuntza bera erabiltzen zuten. Beste ikerketa batek adierazi zuen, bestalde, “elkarrizketatuek... komunitatera iritsi berriei buruzko ondorioak ateratzean, komunikabideetan asilo eskatzailei eta Britainia Handira iristen ziren immigrante ekonomikoiei buruz erabilitako mito berak errepikatzen zituzten, eta beren emazteak eta alabak mehatxupean zituzten harrapakinak zirela zioten”.

Logikoa denez, EBko 2005eko azterketa baten arabera, “asilo eskatzaileen kontrako” jarrera erakusten zuten 30 herrialdeko zerrenda batean, Erresuma Batua bigarren lekuan zegoen. Hala ere, britainiar herritarrak nahiko tolerantak ziren, itxuraz, beste gai batzuetan, eta hogeigarren lekuan zeuden “Gizar-



te Kulturantzatasunaren kontrako» herrialdeen zerrendan eta hamaseigarrenak –19 herrialderen artean– “Aniztasunaren Kontrakoa”.

“Egunkari askok zabalduko gezurrek pozoitu egin dute asiloari buruzko jendearen diskurtsoa –dio MediaWise kazetariaren etikaren aldeko erakundearen Zuzendari den Mike Jempsonek-. Errefuxiatuei hitza ukatzen zaie, beraz, jendeak ez daki haiek zergatik bilatzen duten babesa, ezta nola lagun diezaiegun ere”.

Egunkariak haserre jartzen dira arrazistatzaletan salatzen dituztenean, edo Der Stürmer egunkari naziak 30eko hamarraldian erabilitako propaganda tekniketara jo izanaz salatzen dituztenean. Oso trebeak dira kritikak horiek kritika egileen kontra bihurtzen: “egiaren” alde diharduten kazetari adoretu eta atsekabe-

# Asiloari buruzko Alpe ing

**Arrazismoaren eta Antisemitismoaren kontrako Suitzar Fundazioak iragarki batzuk kaleratu zituen 2003ko urrian.** Haietako batek, zinemako pantailetan eta egunkarietan agertu zenak, honako

galdera hau egiten zuen: “Nola lortzen dute juduek dirua?”. Etena zetorren gero, eta, ondoren, erantzuna: “Lan eginez, gu guztiok bezalaxe”. Sail bereko beste iragarki batean, zera zioten: “Nondik ateratzen dituzte kosovoarrek beren autoetarako irratia?” Eta erantzuna: “Erosi egiten dituzte, gu guztiok bezalaxe”. Honako galdera hau agertzen zen hirugarrenean, berriz: “Zer egiten dute beltzek beren emaztearekin,

bazkalduan?”. Erantzuna: “Bazkaldu, gu guztiok bezalaxe”.

Suitzan, hauteskunde orokorren atari-atariaren zeuden, eta asilo eskatzaileen eta immigranteen auzia –eta horiek era guztietako krimenak egiteko ustez duten joera– hitzetik hortzera zebilen.

Iragarki ironikoak ziren, inondik ere, eta polemika sortu zuten; nolabait esateko, iragarki sail hura argitaratzea ekarri zuen atzeritarren kontrako kartelen sailak berak baino polemika handiagoa (ikus 12. orrialdea). Asiloaren aldeko batzuek esan zuten asiloaren kontrako lobbyari sekulako mesedea egin zirela kanpaina harekin, immigrazioaren eta asiloaren auziak gori-gori jarri zituztelako.

### PROPOSAMEN PROBOKATZAILEA

**Hurrengo urtean, ACNURek erabaki zuen ezinezkoa zela mezu «bigunen» bidez Austriako jendartearen bizimodu presazkoan inolako arrastorik egitea, eta mezu probokatzaileagoak behar zirela horretarako. Izan ere, Austria guztian asilo eskatzaileen kontrako sentimena errotzen ari zen –funtsik gabe, oro har– eta mezu gogorren bat zabaldu ezean, ez zirudien jendeak zalantzan jarriko zituenik asilo eskatzailei eta errefuxiatuei buruz esaten zizkieten**

gezur asko eta asko edo neurritik ateratako gauza asko.

Eta hala, 2004ko udan, Austriako herritarrek bi gizon bitxi topatu zituzten aurrez aurre, eguneroko eginkizunei ekitera zihoazen goiz batean: gizon haietako batek belarri batetik sartuta zuen hatza eta beste belarririk irtetzen zitzaion, eta bigarren gizona kremailera batez irekitzen ari zen bere burua.

Gustura begiratzen zieten bi gizon haiek herritarrei 3.100 publizitate hesitatik, kafetegietan eta tabernetan barreiatutako 60.000 publizitate txarteletatik, web orrietatik, Vienako metroko informazio elektronikoko paneletatik eta kalean gora eta behera zebiltzan elastikoetatik.

Argazki oinek argi eta garbi zioten itxura susmagarriko gizabanako haiek asilo eskatzaileak zirela, eta, ohi bezala, asilo sistemaz abusatzeke beren ohiko jokoan ari zirela.

“Asilo eskatzaileek inoiz ez dute erakusten beren benetako aurpegia”, horixe zioen kremaileraren iragarkiak. “Asilo eskatzaileek iruzur egiten dituzte beti”, zioen belarririk ateratzen zen hatzak. Iragarkien behealdeko gakoak zioenez, «aurreiritzi guztiak» ezagutzeko aukera eskaintzen zuen Austriako



tuak bilakatzen dira. Kritikak dituztenek -hala diote beraiek- "politikoki zuzenak" izateko grinak bultzatuta jarduten dute, baina adierazpen askatasuna murriztea da beren azken helburua.

Berdin dio 19. artikulua izeneko erakundeak -adierazpen askatasuna babesteko sortutako erakundeak- 2003ko abuztuan txosten zorrotza argitaratu izana egoeraren deskribapen hau eginez: "informazio okerren eta estatistika funsgabeez osatutako egiaztapenen koadro konplexua, Britainia Handian bizi diren asilo eskatzaileei eta errefuxiatuei buruzko dimentsio bakarreko kalifikazio eta irudien erabilera desegokia".

2001eko abuztuan, Daily Express egunkariako kazetariak beren egunkaria Britainiar Prentsaren Erreklamazio Batzordearen (PEB) aurrean salatuzko ohiz kanpoko erabakia hartu zuten bi txandatan. Egunkari horretako sindikatu saila kexu zen: "kanpaina luzea [Express egunkariak] egin da asilo eskatzaileen kontra, egunkariaren argitaraldia handitzeko xedez". Eta 2005eko urtarrilean, beste salaketa bat aurkeztu zen ijitoen kontrako dozena bat artikulua argitaratu ondoren: "1,6 ijito, herria inbaditzeko prest". Press Gazette egunkarian kazetari baten kasua aipatu zen (haren izena eman gabe), zeinaren arabera "presionatu egin zuten artikulua arrazistak eta su eragileak idatz zitzen". Salaketa haiek ez ziren aintzat hartu.

Zenbait Gobernu Kanpoko Erakunderen presioen ondorioz, besteak beste Errefuxiatuen Batzordearen eta Media Wiseren RAM Proiektuaren presioen ondorioz, Erreklamazio

Batzordeak (PEB) ohar bat idatzi behar izan zien komunikabideetako zuzendariari zuzenak ez diren esaldien eta esaldi enganagarrien erabilerrari buruz.

Richard Ayre Article 19 erakundearen lehendakariak dio kontua ez zela "[asilorearen gaia] leuntzea edo minimizatzea, baizik eta gai horri buruzko informazioa alderdikeriari gabe eta leialtasunez ematea. Komunikabideek gaia zuzentasunez lantzen badute, ikuspegi jatorragoa izango dugu politika publikoaren garrantzizko atal horri buruz. Baina ez bada behar bezala lantzen, gaiaren ikuspegia eman beharrea, zirikatatu egingo dugu".

Eta badirudi britainiar polizia ere bat zetorrela iritzi horrekin. 2001. urtean, Polizi Buruen Elkarteak gida "ético" bat argitaratu zuen, zeinetan adierazten zen "asilo eskatzaileen kontrako adierazpide arrazistak ohiko txanpon bihurtu dela dirudi, eta onargarrizat hartzen dira garai batean beste gutxiengo batekin onartuko ez liratekeen adierazpideak".

Arrazismoa eta xenofobia gertaera arrunt eta hutsal bihurtzen dituen da (gertaera hori ez da soilik Erresuma Batuetan gertatu, inolaz ere) difamazioen jokoaren alderdi arriskutsuena; arrazismoaren kontrako legeak ez betetzeko Troiako zaldi bilakatzen baitu asiloa. ■



SEMI-IMAGE/JL DAVIES/DF/GBR-2002

# guruetao mitoak eraisten

ACNURen web orriak. Hain zuzen ere, orri horretan, hamabi mitorik ezagunenak eta herritar asko eta asko oker zergatik zeuden azaltzeko adierazpen labor eta argiak bildu zituen agenziak.



Kanpainak nahiko arrakasta izan zuen. ACNURen web orriaren bisitari kopuruak errekor guztiak hautsi zituen.

Irudi horiek erakusten zuten postala, berriz, "2004. urteko Publizitate Txartel" izendatu zuen Vienako aldiakari batek. Udazkenean, kanpainaren bigarren fasea abian jarri zuten: "Inpartzialtasuna, Aurreiritzien Ordez". Heinz Fischer

Lehendakari Federalaren, Josef Penninger austriar zientzialari ospetsuaren eta Hubert von Goisern musikari ezagunaren lekukotasunaren sostengua jaso zuten kanpainak, fase horretan.

Azkenik, Die Furche astekariak bost artikulua argitaratu zituen kanpaina ardatz hartuta, eta haien idazle Wolfgang Machreichek Austriako prentsan banatzen duten sari nagusia eskuratu zuen.

Kanpaina harekin -irabazi asmorik gabeko kanpaina zen- Publicis publizitate arloko multinazionalak jende asko konbentzitu ote zuen edo ez egiaztatzea zaila da. Baina ezin uka daitekeena da eztabaida ugari sortu zituela Austriako

mito eta aurreiritzi zabalduenei buruz. Eztabaida horren oihartzunak nabarmenak dira gaur egun, oraindik,

**Iragarki ironikoak ziren, inondik ere, eta polemika sortu zuten; nolabait esateko, iragarki sail hura argitaratzea eragin zuen atzeritarren kontrako kartelen sailak berak baino polemika handiagoa ekarri zuten.**

hedabideetan eta gobernu federaleko eta gobernu lokaletako ordezkarien jendaurreko adierazpenetan.

Hala, esan liteke kanpainak hamahirugarren mitoa ere suntsitu zuela: asiloaren aldeko kanpaina indartsu eta probokatzailer batek haserrea sortuko duela eta, egia biribilak esan arren, huts egingo duela dioen mitoa, alegia. Kanpaina hura gidatu zuen ACNUReko kide Roland Schoenbauerrek dioenez, huraxe zen jendartearen arreta erakartzeko bide bakarra.

"Une hartan nagusitzen ari zen diskurtso politiko gaiztoa kontuan hartuta, eta kanpaina handi bat antolatzeko baliabide ekonomikorik ez zegoela kontuan hartuta, bide horri heldu beste aukerarik ez genuen -dio-. Mezu positiboek huts egingo zuketena era horretako giro batean, seguru".

# Belgika, joera aurre egin

VANESSA SAENEN

**O** PORRAK BAKARDADEHANDIKO garaia izan ohi dira sorterritik urrun bizi direnentzat. Egia simple horretan oinarrituta, Belgikako Linburgo probintziako Het Belang van Limburg egunkariak ekimen harrigarria jarri zuen abian aurreko Gabonetan.

Egunkari horrek probintziako 44 udalerrietako irakurleei dei egin zien, "Linburgo, toki abegitsua" eslogana errealitate bihurtzeko; horretarako honako hau proposatu zuen: asilo eskatzaileei Eguberritan beren etxeetan bazkaltzeko gonbita egitea. Azkenean, 100 familia belgikar baino gehiagok erantzun zioten deialdiari eta hartu zituzten etxean atzerritar ezezagunak; eta gehiago ere izango ziren, baldin eta egunkariaren proposamenarekin bat egiteko asmoa agertu zuten etxeak betetzeko adina asilo eskatzaile izan balira.

Eguberriak proiektuaren koordinatzailea Gert Reynders izan zen; Het Belang van Limburg egunkariak asteartetan argitaratzen duen Berri onen egunkaria gehigarriaren zuzendari da bera. Reyndersen ustez, egunkariaren "informazio eginkizuna" zen asilo eskatzaileei eta errefuxiatuei buruz herrialdean zegoen "ezjakintasun maila altua" murriztea. Haren iritzian, Eguberritako bazkariaren asmoa auzi honen inguruan zabaldu diren ideia negatibo, estereotipo eta irudi izugarriei aurre egiteko modu bat zen.

Hala, egunkariko kazetari batzuk ekimen honen berri emanez igaro zituzten Eguberriak; probintzia guztian batera eta bestera ibili ziren, otorduaren argazkiak ateratzeko eta anfitrioiak nahiz gonbidatuei elkarrizketak egiteko. Artikuluak Berri onen egunkaria gehigarriaren hurrengo edizioan eman zituzten argitara.

Ekimenak erabateko arrakasta izan zuen.



2005ean 100 familia belgikarrek Gabon Eguna beren etxean igarotzeko gonbita egin zieten hainbat asilo eskatzailei.

Reyndersek azaldu duenez, aurrerago, egun hartan anfitrioi izandako batzuek egunkarira idatzi zuten, "asilo eskatzaileak ezagutzeko aukera eman izanagatik eskerrak emateko".

Linburgoko probintziak, Alemaniarekin eta Holandarekin muga egiten baitu, esperientzia zabala du immigranteekin. Izan ere, 1900ean ikatza aurkitu zuten probintzia horretan, eta 70eko hamarraldira arte, immigranteak aritu ziren meategi horietan lanean. Linburgoko probintziaren web orriak "urte beltza" dutela eta "oso toki pintoreskoa" dela dio, oraindik ere, harro asko.

"Immigranteekin loturiko auzietan dugun esperientziari esker, gure hiria beste hiri handi batzuk baino irekiagoa da. Anberes edo Brusela baino irekiagoak -dio Reyndersek-. Horregatik, nahiko seguru geunden Eguberrietako gure ekintzak aurrera egingo zuela".

Frantsesez argitaratzen den Le Soir belgikar egunkariak ere landu du immigrazioaren gaia, ikuspegi bitxi samarretatik landu ere. Egunkari horren igandekarian, paperak erregulatzeko aldarrikatuz eliza bat okupatu zuten atzerritar batzuen argazkiak eman zituzten argitara. Erretiratu horietan "ilegal" deritzen horien alderdi humanoan abarmentzen zuten; atzerritar bakoitza bertako biztanle batek "adoptatua" zen. Okupatutako elizaren atarian ere jarri zituzten argazkiak, eta denda batzuetako urakusleioetan ere bai, solidaritatea adierazteko. "Ilegalek arriskua hartzen dute beren izenak, argazkiak eta istorioak plazaratuz -idatzi zuten Le Soir egunkariaren-. Baina duintasuna dago jokoan".

## IKUSPEGI POSITIBOA

BELGIKA, GAUREGUN, KULTURANIZTASUNAREN laborategi bat da: estatu federala da, eta boterea

**"Belgikako asilo sistema Europako onenetakoa da ... harrera sistemagatik eta onartutako eskaeren kopuru handiagatik".**

# orokorrari nahian

hainbat hizkuntza komunitateren artean (holandarra, frantsesa eta alemana) eta eskualderen artean –Bruselako hiria barne– banatuta dago. Belgika izan zen 1951. urtean NBEren Errefuxiatuei buruzko Hitzarmena sinatu zuten herrialdeetako bat, eta hango asilo sistema perfektua ez den arren, ACNURek Bruselan duen ordezkari Judith Kuminen ustez, “Europako onenetakoa da”; “harrera sistema eta onartutako eskaeren kopuru handia” dira baieztapen hori egiteko arrazoi nagusiak, berak dioenez.

Belgikako azken urteetako historian, eta asiloaren auziari dagokionez, garrantzi handiko uinea izan zen Semira Adamuren kasu tragikoa; 20 urteko emakume nigeriar hari ukatu egin zioten asiloa, eta itota hil zen, 1998. urtean, deportazioari aurre egiteko ahaleginean. Gertaera haren ondoren, barne azterketa sakona egin zuten, bereziki herrialdeko hedabide batzuek.

Europako beste herrialde batzuetan ez be-

zala, Belgikako egunkariek ez dituzte sustatzen asiloaren kontrako kanpaina indartsuak asilo eskatzaileak eta errefuxiatuak kriminaledobizkarroi gisa erakusten dituzten kontakizunak etengabe argitaratuz.

Eskuin muturreko Vlaams Belang alderdiak immigrazioaren kontra badihardu ere, gobernu federalean gizarte integrazioaren ardura duen ministroak, Christian Dupontek, dibertsitatearen garrantzia nabarmentzen du. “Nazio handi guztiek –zioen, berriki, migrazioari buruzko biltzar paneuropar batean– ongietorria egin diete beren lurraldetik igarotzen ziren atzeritarrei, eta beren esku zegoen guztia egin dute haiek etxean bezala senti zitezen”.

Izpiritu horri berari jarraituz, Fedasil agentziaren –Belgikan asilo eskatzaileei harrera egiteko arduraduen gobernu agentzia– helburu nagusietako bat elkarrekiko errespetua sustatzea da. Agentzia horrek hainbat kultura eta he-

ziketa ekimen babesteko programa zabala eratu du, belgikarren eta asilo eskatzaileen arteko elkar ulertzea sustatzeko. Orain dela gutxi, Chez Mo & Co. jolas hezigarria aurkeztu zuen; jolas horren bidez, Fedasilen harrera zentroetako batean asilo eskatzailea izatea zer den ikas dezakete haurrek.

Edonola ere, kontzientzia harrarazteko proiektu horiek polemika ere sortu ohi dute. Erakundeak argazki erakusketa ibiltaria antolatzen errefuxiatuak eta asilo eskatzaileak ardatz hartuta, eta Anberesko liburutegiaren egoitza nagusia, egoitza berri eta ospetsua, aukeratu zuen argazkiak erakusgai jartzeko; baina baimena ukatu zieten. Hiriko alkateak argudiatu zuen erakusketa hark izen txarra ekarriko ziola inguru hari –errefuxiatu eta immigrante ilegal daude inguru hartan– eta ez zitzaiola iruditzen egokia liburutegi berriak egingo zuten lehenengo erakusketa gai horri buruz izatea.

“Anberesko hiriak ez zuen behar bezala erantzun –dio Fedasileko Komunikazio Zuzendariak–. Baina kasu bakarretakoa izan zen. Erakusketa beste hiri askotan egin da eta egingo da, eta kritika oso positiboak jasotzen ari da”. ■

## Desberdintasun ororen gaineratik

*“Nire sustrai afrikarren eta mendebaldeko ‘balioen’ arteko aldeak barrenak urratzen dizkit. Eta besterekin partekatu nahi dut sentimen hori” – PIE TSHIBANDA*

**Elkar ulertzeko xedea izan da** Pie Tshibanda belgikar komiko ospetsuaren akuilua; kongoar errefuxiatua izan zen, baina dagoneko belgikar herritartasuna du. Azken sei urteetan mundu frankofono guztian barrera ibili da, bere ikuskizuna aurkezten; garrantzi handiko aretoetan egin ditu emanaldiak, eta telebistan eta irratian ere agertu izan da. Batzuetan dibertigarria da, besteetan tristea, baina beti aritzen da kementsu; mesfidantzaren eta gaizki ulertuen hesiak umorearen bidez eraitsi nahi izan ditu Piek.

Pie Tshibanda psikologo, irakasle eta idazle ospetsua zen, Zairen (gaur egun, Kongoko Errepublika Demokratikoa). Baina, 1995ean, herrialde hartatik ihes egin behar izan zuen, garbiketa etnikoari buruzko bideo bat produzitu, artikulua idatzi eta komikiak sortu zituela-eta. 44 urtekin iritsi zen Belgikara, eta hutsetik hasi behar izan zuen; erabat ezezaguna izateaz eta atzerrian bakartuta bizitzeaz gainera, asiloa lortzeko burokrasia konplexuaren gorpulean sartu behar izan



zuen. Bere ikuskizunean kontatzen du harrera zentrotik igaro ondoren bizitoki gisa esleitu zioten herrian atez ate nola ibili zen, bere burua aurkezteko. Jendeak urduri begiratzen zion errezelen atzetik, eta bera zain egoten zen kanpoan, euritan blai. Etxe guztietara joan zen, bata bestearen atzetik, eta, pixkanaka, “bat gehiago” bihurtu zen. Bitarte horretan, bere teknika narratiboak hobetu zituen. Eta 1999an lehenengo ikuskizuna plazaratu zuen, “Beltz ero bat zurien lurrean”, eta harrezkero ehunka bider antzestu du. Gaur egun, beste produkzio batekin txandakatzen du lan hura, “Ez naiz tribuko sorgina” izenburukoarekin alegia.

“Ikus-entzuleek, zuriek nahiz beltzek, beren irudiaz barre egiten dute, Piek erakusten dien ispiluan”, idatzi zuten Le Monde frantses egunkarian. Beste egunkari frantses bat ere, Le Canard Enchaîné, lilitatu gelditu zen: “Oro har, barre eginarazten dizu, sinesgarria da, oso adierazgarria: zenbat harritzen garen mendebaldarrak, abegi onari buruz ikasteko zenbat daukagun ikusten dugunean”.